



MUNGIA

EUSKARAZ BARRA-BARRA

ZIURTAGIRIAREN JARRAIPENA

2024



HORI-HORI SA

Arbidea, 1 - 48001 Bilbo (Bizkaia)

Tel. 688 618 816

www.hori-hori.eus

1. EUSKARAZ BARRA-BARRA (E//)

Herritarrek euskaraz hitz egin dezaketen guneak identifikatzen dituen ikurra da *Euskaraz barra-barra*. Kontsumitzailea erdigunean jarri eta estres linguistikoa murrizteko helburua du.

Euskaraz barra-barra koordinazio mahaia Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Nafarroako Euskarabideak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak osatzen dute. Era berean, koordinazio mahaiaz gain, Euskal Herriko erakunde publiko zein pribatu ugari, tokian tokiko euskara batzordeak eta hamaika boluntario eta entitatek ere osatzen dute egitasmoaren antolakuntza.

Euskaraz norekin? Non? Noiz? Inoiz bere buruari galdera horiek egin dizkionari bidea argitzen laguntzen dio marka honek, ikusten duen tokian euskara erabiltzeko aukera bermatzen baitio.

Euskaraz barra-barra mezuak euskararen etengabeko erabilera islatzen du. Hori da markaren izena, lelo ere bihurtua. Markaren izaera, muina, oinarria ideia argi batek barnebiltzen du: euskaraz une oro eta nonahi egin daiteke, edo onomatopeiak sinonimo dituen hitzek dioten bezala, maiz, sarri edota etengabe.

1.1. HELBURUAK

Euskal Herriko ahalik eta establezimendu gehienetan euskara erabiltzeko aukera bermatzea da erronka nagusia, jarraian azaltzen diren helburuak oinarri hartuta:

- Euskararen erabilera sustatzea, merkataritzaren sektorean eraginez: jendeak egunero bisitatzen duen esparrua dela kontuan hartuta, bertan euskaraz aritzea bultzatzea ezinbestekoa da.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatu eta bermatzea: herritarrek euren hizkuntzan artatuak izateko aukera bermatzen da marka eskuratu duten establezimenduetan.
- Euskal hiztunen nahasmen eta estres linguistikoa murriztea: establezimenduaren sarreran ekimenaren pegatina bat jarrita bezeroak badaki bertan euskaraz lasai aritu daitekeela, langileak ez diolako eskatuko hizkuntzaz aldatzea.
- Euskararen biziberritzearen inguruan kontzientziazioa eta konpromisoak sustatzea. *Euskaraz barra-barran* parte hartzean, euskararen aldeko hautu bat egiten da, bezeroei gure hizkuntza hitz egiteko aukera ematen baitie.

2. E// EZARTZEKO IRIZPIDEAK

Euskaraz barra-barra eskuratzeko gutxieneko baldintza establezimenduan bezero

euskaldunaren mezuak ulertzea da, alegia, bezero hori hizkuntzaz aldatzera ez behartzea.

Establezimendua herritarrentzat irekita dagoen bitartean, beti ziurtatu behar da gutxienez langileren bat egongo dela herritar euskalduna artatzeko. Horrenbestez, *Euskaraz barra-barra* eskuratzeko baldintza ez da establezimenduko langile guztiek euskara ulertzea, baizik eta beti egotea langileren bat ulertzeko gaitasuna duena eta, beraz, herritar euskalduna artatzeko gai dena.

Mungian irizpide horixe erabili zen markaren ezarpena egin zen garaian eta irizpide horri eutsi diogu 2024an jarraipen bisitak egin eta marka mantendu edo kentzerakoan ere.

3. ERABILITAKO EUSKARRIAK

Markaren ezarpena egin zenean hautatutako euskarriak mantendu ditugu 2024an: pegatinak eta mahai gaineko euskarriak.

Arestian aipatu bezala, atean pegatina jartzerakoan herritarren estres linguistikoa murrizteaz gain establezimenduan euskara erabiltzeko gonbita egiten da, dendara sartzerakoan ikusten den pegatina baita.

Mahai gaineko euskarriaren kasuan, establezimenduan langile bat baino gehiago dutenei banatzen zaie, dendan bertan langile guztiek euskaraz artatzeko gaitasuna ez dutenen kasuan bereziki: euskarri honen bidez marka eskuratu duten dendetan bezeroak jakingo du zein langilerekin aritu daitekeen euskaraz.

4. MARKAREN JARRAIPENA

2023an Mungiako 57 establezimenduk eskuratu zuten Euskaraz barra-barra marka. Horien artean, ordea, baziren batzuk zalantza sortzen zutenak, gutxieneko baldintzak oso justu betetzen baitzituzten, eta horiei ziurtagiria eman arren jarraipen zorrotza egitea erabaki zen. Hala, 2024ko azaroan banan-banan deitu zitzairen lehendik izena emanda zeuden gehienei, 44ri hain zuzen ere; gainerakoei 13ei, hau da, telefono bidez baloratzeko zailtasun gehien ematen zutenei bisita egin zaie. ¹

Abenduaren 16an eta 17an egin dira jarraipen bisitak horietan jasotako datuen arabera, 3k izan ezik guztiek erakutsi dute markan jarraitzeko baldintzak betetzen dituztela. Beste bati ohartarazpena egin eta, erregistrotik aterako ez den arren, 2025erako aldaketa batzuk egin beharko dituela adierazi zaio.

5. MARKA ESKURATU DUTEN ESTABLEZIMENDU BERRIAK

Bestalde, 2024an hiru establezimendu berri bisitatu dira *Euskaraz barra-barra* ziurtagiria lortzeko interesa agertu dutelako. Horietatik 2 lortu dute marka: NAIA PERIANES ILE-APAINDEGIA eta POLITTE ..

¹ Jarraipena egiteko moduak eta bitartekoak Mungian “Euskaraz Barra-Barra” kudeatzen duen batzordeak 2024ko otsailaren 2an egindako batzarrean ezarri ziren. Batzorde hori honako kideek osatzen dute: Mungiako Merkataria eta Ostalarien elkarteko ordezkaria, Mungialdeko Merkataritza Bulegoko teknikaria, Behargintzako ordezkaria eta Euskera Saileko burua.

6. ONDORIOAK

Gauzak horrela, 2024aren amaieran egindako bisiten ondoren bi establezimendu berrik lortu dute *Euskaraz barra-barra* ziurtagiria; bi horiekin batera ziurtagiria lortzeko interesa agertu duen hirugarrenari ez zaio eman gutxieneko baldintza ez betetzeagatik. Bestetik, zalantzan genituen hamahiru establezimendutatik hiruri kendu egin zaie arrazoi beragatik; eta beste biri ere kendu egin zaie negozioa kendu edo eskuz aldatu dutelako.

Azkenik, lokaletako bat 2025eko balorazioaren zain gelditu da.

Une honetan, beraz, 53 establezimenduk dute Mungian *Euskaraz barra-barra* ziurtagiria:

- | | |
|-----------------------------------|------------------------------------|
| 1. Abiar-Seguros Bilbao. | 28. Ibinarriaga diseinua. |
| 2. Aholkulariak Abokatuak. | 29. Inmobiliaria Urrutia. |
| 3. Artza kirol moda. | 30. Iris Moda. |
| 4. Asesoría Torrealdai. | 31. Iturburu inmobiliaria. |
| 5. Atlas fisioterapia. | 32. Klinika Malai. |
| 6. AXA Aseguruak. | 33. Lasarte Hartz Klinika. |
| 7. Azulmarino. | 34. Lekune. |
| 8. Bioleta Munduan. | 35. Mapfre. |
| 9. Boom video. | 36. Mercería Sandra. |
| 10. Comercial Juma. | 37. Mirak Arkitektura. |
| 11. Construcciones Remit. | 38. Montpellier estilistas. |
| 12. Elaia Akademia. | 39. Mungiako Herriko Taberna. |
| 13. Eliot School. | 40. Naia ile-apaindegia. |
| 14. Enparantza Hartz Klinika (*). | 41. Óptica Mungia. |
| 15. Estanko Butroi. | 42. Pelukeria Lirain. |
| 16. Estanko 2. | 43. Peluquería Caballeros Zubiaga. |
| 17. Estetika Lirain. | 44. Petonpet. |
| 18. Estudio de danza Elai. | 45. Politte. |
| 19. Expert Trobika. | 46. Rafa harategia. |
| 20. Foto Argi. | 47. Revistero Aldapa. |
| 21. Gaztebi peluquería. | 48. Sastrería Iñaki. |
| 22. Golzarri Farmazia. | 49. Sukaldetxu Eroan&Eat. |
| 23. Gorostidi Bizikletak. | 50. Tesla ikasgela. |
| 24. Gudan fruta-denda. | 51. Torpedo Gorria. |
| 25. Gurea Modak. | 52. Urrutia Jolas Kirolak. |
| 26. Gurelur taberna. | 53. Zirats Estilista. |
| 27. I&I Centro de belleza. | |

(*) 2025eko balorazioaren zain.

Datu horiek 2024ko abendukoak dira. Txosten hau egin eta argitaratzen denerako, baliteke egoera apur bat aldatuta egotea, lokaletako batzuk aldaketa prozesuan daude eta. Erregistro ofizialean sartzen direnean, kontuan hartuko da baten bat zarratu edo eskualdatu den.